

Euskaltzainburu jauna, euskaltzain oso, ohorezko eta urgazleok.

Nire ibilbidean bidelagun sendo eta abegikor... naizena izaten lagundu didazuen emazte eta seme-alabok.

Lagunok!

Ibili naizen tokietan ibili ondoren, saririk, aitormenik onena eman didazue. Kutxako lanak bizitzeko baliabideak eman badizkit ere, ikastolek bizitza eta bizipoza eman didate, hamarkadetan. Ikastolen mugimenduak eman dit berariazko euskal hezkuntza eredu baten alde, euskara berreskuratzearen alde jarduteko... zeregin horretan nire ekarria egiteko bene-benetako aukera.

1980-2000 aldian, ikaragarrizko eklosioa eman zen euskara eta euskal kulturaren... eta indarberritze horretan ikastolen ekarpena erabakigarria izan zen. Aldi horretan, erabaki estrategiko garrantzitsuak hartu ziren, eragin handia izan dutenak euskararen eta euskal kulturaren indarberritzean. Herri bezala gure izaera eta nortasuna iltzatzen, azpimarratzen lagundu digutenak.

Ez naiz ni, ordea, aitortua sentitzen bakar-bakarrik. Zailtasunak, isilean, oztopoak mugiarazten saiatu ziren gurasoak, ikasleak, askotariko profesionalak, hitz batez esanda: Ikastolen Mugimendua aitortzen duelako Euskaltzaindiak nire bidez eta nire ustez. Bidegile izan ditudan askoren aurpegiak datozkit orain... batzuk gure artetik joan dira, beste batzuk urteetan sartu dira, guztiek aurpegiaren irribarrea lagun zutela, zezaketen guztia eman zuten. Guztiona da meritua... Guzti-guztiok jarri baitiogu arima eta musika Joxean Artzek idatzitako poema hunkigarri hari: "Iturri zaharretik edaten dut, ur berria edaten, beti berri den ura, betiko iturri zaharretik".

Zer ginateke gu sustraiei bizkarra erakutsiko bagenie, berritzen ari den hizkuntzari... euskarari etorkizun are hobea eskaintzeko lan egingo ez bagenu.

Bihotzez mila esker!

Antonio Campos
Bilbon, 2014ko uztailaren 18an